

Orozkoko Udalak Interes Publiko Goreneko Proiektuen figura jasotzearen aurkako mozioa onartu du

Abenduaren 14ko udal osoko bilkuran EH Bilduren eta Adieren aldeko botoekin eta EAJren aurkako botoekin, EH Bildu Orozkoko Udal Talde Politikoak aurkeztutako interes publiko goreneko proiektuen erregulazio berriaren inguruko mozioa onartu zen.

Orozkoko Udalak beraz, honako konpromiso hauek hartu ditu:

1. Orozkoko Udalaren Osoko Bilkurak adierazten du Lurralde Antolamenduari buruzko Legeak Interes Publiko Goreneko Proiektuen figura jasotzearen aurka dagoela, eta baita ere, gure udalen toki-autonomiarentzat kaltegarria den eta gure toki-demokrazia urratzen duen beste edozein tresnaren aurka dagoela.
2. Orozkoko Udaleko Osoko Bilkurak EUEDEL Euskadiko Udalen Elkarteari eskatzen dio, udalen udal-interesa defendatzeko, jendaurrean adieraz dezala aurka dagoela eta dagozkion kudeaketa guztiak egin ditzala Lurralde Antolamenduari buruzko Legea aurreko puntuan deskribatutako moduan alda ez dadin.
3. Orozkoko Udalaren Osoko Bilkurak mozio honen edukia Eusko Legebiltzarrera eta EUEDEL Euskal Udalen Elkartera bidaltzea erabaki du.

EH Bildu Orozko

Orozkon, 2021eko abenduaren 16an

orozko@ehbildu.eus

orozko.ehbildu.eus